# ANTZINAROA



5.000 K.a. - 467 K.o.

Mendebaldeko musikaren historia Grezian hasten da.
Grekoek, musikak jatorri jainkotiarra zuela pentsatzen zuten.

Musika hitza **MOUSIKÉ** hitzetik dator eta **MUSEN ARTEA** esanahia du.
Mitologia grekoan MUSIKA eta Jainkoak lotuta zeuden, eta botere majikoak zituela pentsatzen zuten.
Hori dela eta, garrantzi handia zuen nerabeen hezikeketan.

## Ezaugarriak



- Musika Kontzeptua: MUSIKA, OLERKIA eta DANTZA
- Monodikoa eta akonpainamendu heterofonikoa → MELODIA BAT + Instrumentuak melodia imitatzen
- Eskala modalak, liraren 4 harietan oinarrituta "tetrakordoa".
  Hasierako noten arabera, izen desberdinak hartzen dituzte.
  Eskala bakoitzak sentimendu desberdina adierazten du.

ADIBIDEZ






- Notazio alfabetikoa, doinuen altuera adierazteko.
- Oin metrikoak, erritmoa adierazteko.
  Erritmoa, eskema batzuen bitartez, bertsoekin biltzen zen.
  Doinu luzeak eta laburrak konbinatzen ziren, silaben arabera.

| | | |
|---|---|---|
| — ∪ | luze-labur | |
| ∪ — | labur-luze | |
| — ∪ ∪ | luze-labur-labur | |
| ∪ — — | labur-luze-luze | |



## INSTRUMENTUAK

Gehien erabilitakoak:

- LIRA, Apolorekin lotuta. Hari pultsatua.



- AULÓS, Dionisorekin lotuta. Mihi bikoizdun haize zura.



- PAN TXIRULA, haize zura.



- KROTALOAK, perkusio txikia.
- SALPINX, haize metala.





@biokf